

Odolaren Mintzoa
Odolaren Mintzoa
Oihuka, 2013



Borroka eta maitasuna

ODOLAREN MINTZOA Usurbilgo (Gipuzkoa) talde gazte bat da. Beren lehen CDa kalean dute. 6 kantuz osaturik dago lana.

Taldeakideek odol beroa daukate. Grina, kementa eta indarra barrutik ateratzen zaie, eta borrokatzeko eta maitatzeko gogoa ere bai.

Gazteak dira, baina ez du ematen, CDko kantuek entzun eta gero taldekideek erraztasunez eta segurtasunez, gatz eta piperraz jotzen dutela sumatzen baita. Doinu potoloa, gordina eta trinkoa osatu dute. Kantuek azkarrak dira, zuzenak, zorrotzak eta oldartsuak, baina taldekideek melodia politzez borobildu dituzte.

Gitarrak dira oinarria. Ahotsak batzuetan oldarkorrek dira baina beste batzuetan ez hainbeste. Luken kantariak leun samar abesten baitu hainbat kantutan. *Bakarrik ere* kantuan aipagarria da Oihana Arsuaga taldekideen lagunaren parte-hartzea, bere ahots politak ederki osatzen baitu Luken kantariaren abesteko modua.

Joanes Txueka Seguro (baxua eta ahotsak), Beñat Txueka Seguro (gitarra), Jokin Irastortza Larrañaga (bateria) eta Luken Arkarazo Silva (ahotsa eta gitarra) dira Odolaren Mintzoa taldekideak. Andoaingo Garate estudioetan (Gipuzkoa) grabatu dute diskoa, 2013ko uztailean. Kaki Arkarazo arduratu da grabazioaz, nahasketez, masterizazioaz eta ekoizpen artistikoaz, eta oso lan ona egin du. Ander Gilleneak (argazkia) eta Unai Aranak (diseinua) ere parte hartu dute *Odolaren Mintzoa* lanean.

Doinuak bezala, hitzak zuzenak dira, eta batzuetan bortitzak –“Nahiago dugu ilunpetan bizi, zertarako gure beldurrei aurre egin? Arriskurik gabeko bizitza eder bat, arriskurik gabeko hildako bizi bat!” (*Gaua*)–, baina taldekideak sentikorrak direla nabari da. Jadanik joan den maitasunaz mintzo dira *Mirabe* kantuan –“Lotura sendoenak apurtzerakoan etortzen dira ondorio larrienak. Gauero nire buruari galdetuz: zertan ari zinen, maite zenidala telefonoz esaten zenidan bakoitzean?”– eta *Betirako* kantuan –“Zure begiekin ikasi nuen begiratzen, bizitzaren onenak ikusten. Zure eskuekin ikasi nuen borrokatzen, maite nuen oro defendatzen”–.

Borroka egiteaz: “Bagoaz aurrera, denok batera, aske izatera! Goazen mundua salbatzera, batera, gauzek zentzua galdu ez duten bitartean” (*Askatasunerantz*); “Guztia ahazteko, ekintza antzuak burutu eta gero, ikasi nuen, borrokatzen dela amore eman baino lehen! Maitatzen dela borrokatzen!” (*Bakarrik ere*).

Eta aske izateko nahiaz: “Nazkatuta gaude geu ez garela izateaz oraindik onartu ez den gatazka batean. Hain zaila al da ulertzea? Ezberdinak garela!” (*Ezberdinak*).

Odolaren Mintzoa talde berri bat da. Talde on bat. Beren lehen lana ere ondo egina dago, eta kantuek arin eta gustura entzuten ditut. Hemendik aurrera arretaz erreparatuko diet taldearen hurrengo urratsei, taldearen hurrengo grabazioei eta jendaurreko emanaldiei. ■

Joxi Ubeda

